

Ximon Lopetegi Etxeberria
Donostia, Gipuzkoa (1940)

Aurkibidea

Biografia

Loiolako goiko erriberetan, errio ertzean zegoen Kristobaldegi baserrian jaio zen, 1940an. Etxetik gertu, Goikoeneta eta Kristobaldegi artean, garai batean baserriarenak ziren lurretan moja komentua izango zena eraiki zuten, 1860. urtean. Ondorioz, askoz ere eraikin handiagoa izanik, Kristobaldegitxiki izenez ezagutzen zuten baserria. Baratze eta azokara joaten ziren garaietatik hasita, 1950eko hamarkadan baserriaren lurretan Aita Abartzuzaren ekimenez eraiki zituzten Arantzazuko auzunea nola lehenengo industria pabiloien berri eman zigun, baita Txomineneko auzunearen eta Anisenean Donostiako hoteletako maindireak garbitzen zituzten emakume haien berri ere. 1973an eraitsi zuten Kristobaldegi baserria, baina ordurako errioz bestaldean etxe berria eraikia zuen.

Zintak

DON-164

- **Proiektua:** Behe Urumearen Memoria Historikoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu

- **Data:** 2013-12-27
- **Iraupena:** 140 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Lopetegi Etxeberria, Ximon | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com